

PERU ETA OTSOA

Aurkezten dugun ipuin musikal hau Sergei Prokofievek idatzi zuen 1936 urtean. Bere ideia zen musika sinfonikoa haurrengana hurbiltzea modu dibertigarrian. Ipuin bateko pertsonaiak hartu zituen eta bakoitzari musika tresna bat egokitu zion, errepresentazio modura. Antza denez, gizartearen alderdi ezberdinak errepresentatu nahi zituen ipuineko pertsonai bakoitzaren bidez:

- Aitonak** fagotaren ahotsez hitz egiten du eta autoritatea errepresentatzen du.
- Peru** biolinaren bidez, eta arriskuaren aurrean jokaera ausarta errepresentatzen du.
- Txoria** flautaren bidez mintzatzen da eta heroea errepresentatzen du.
- Ahateak** oboearen bidez mintzo da eta koldarkeria eta burgeskeria errepresentatzen du.
- Katuak** klarinetearen bidez hitz egiten du eta jokaera maltzurra errepresentatzen du.
- Otsoa** tronparen bidez mintzo da, gaiztakeria eta etsaia errepresentatzen du.

Ipuinaren argumentua honako hau da:

Peru baratzera atera da eta han topatu ditu bere lagunak: txoria, ahatea eta katua. Txoria eta ahatea nor den gehiago eztabaidatzen ari dira: txoriak esaten du berak hegari egin dezakeela eta ahateak esaten dio berak igeri egin dezakeela. Bitartean, katua txoria jateko ahalegina egiten du. Orduan aitona atera da eta esan dio Peruri etxera sartzeko, otsoa etor daitekeela eta.

Orduan otsoa etorri da eta ahatea izutu egin da eta bere babeslekitik atera da: ur putzutik lurrera atera da eta orduan otsoak jan egin du. Peruk azkar pentsatzen du nola harrapa lezakeen otsoa. Zuhaitz bateko goreneko adarrera igo, eta soka batez harrapatu du. Txoriak lagundu egin dio otsoaren inguruan hegari egin eta modu horretan engainatu du. Ehiztariak iristen direnerako, lana amaitua dago. Orduan, denak ilaran jarrita eraman dute otsoa Zoora.

HELBURUAK

Clic-en bidez osatu dudan jarduera sortak musika tresna ezberdinak bereizten ikasten lagun dezake: tresnen izena, itxura eta tinbrea ikasten dira eta tresna familia ezberdinen aurkezpena ere egiten da: haria, haizea eta perkusiokoak.

METODOLOGIA:

Lehenik, ipuina lehenik ordenadore bidez aurkeztu diet. Hurrek buruhausgarriak egin dituzte eta pertsonaiei dagozkien tresnez jotako melodiak ezagutu dituzte, eta tresna bakoitzaren tinbrea ere bai.

Bigarren sesio batean obra osorik entzun dute kasete baten laguntzaz eta aldi berean ordenadoreko irudiak ikusi dituzte.

Ordenagailua gelako txoko batean izanda errazago lortzen da ipuinaren lanketa eta erabilpena.

Hurrengo sesio batean ipuina marrazki bizidunetan ikusiko dute.

Eta azkenik, ipuina ikusiko dugu orkestak jotzen dueneko bideo baten laguntzaz, alegia, Sergei Prokofiev-ek pentsatu zuen moduan ipuina narratzaile batek kontaturik eta orkestak musika joz.

Nire ustez hauxe da obrarik egokienetako bat musika handia haur txikienengana hurbiltzeko.

Jarduerak lau sortatan bildu ditut:

IPUINA: 7 sekuentzia ditu ipuinak. Ikuskaketa ariketak dira. Ahots batek kontatzen du ipuina eta pertsonaien gainean klik eginez gero, dagozkien melodiak entzun litezke.

PERTSONAIAK: Pertsonaiak eta musika tresnak elkar erlazionatzeko ariketak. Ikuskaketa eta elkarketa jarduerak.

BURUHAUSGARRIAK: Ipuinaren 7 sekuentzien irudiak puzzle eran lantzeko. Sekuentzietako bakoitzean pertsonaia batean finkatzen da arreta.

TRESNAK: Pertsonaien atalarekin du zerikusia atal honek. Soinuak tresnak eta pertsonaiak elkarlotu behar dira. Zenbait jardueratan erantzuna idatziz eman behar dute.

Interesgarria litzateke musika tresnak gelan edukitzea, horietako batzuk gutxienez. Bilatu ikasle-irakasle edo senitartekoen artean ekarri eta erakutsi ditzaketenak.

Bestalde, pianoz ere jo litezke pertsonaien melodiak eta ikasleei eskatu bereiz ditzatela.

Ipuinaren bidez beste zenbait alderdi ere landu ditzakegu:

MINTZAIRA MUSIKALA: Soinuaren ezaugarriak, musika tresnak, musika taldeak: orkestra...

HIZKUNTZA MINTZATUA: Ipuinaren kontaketa: Ulermena eta adierazmena, hiztegia...

HIZKUNTZA MATEMATIKOA: Pertsonai kopurua, biolinaren hariak, tresnen tamaina eta itxurak...

MINTZAIRA PLASTIKOA: Ipuinaren marrazkiak, pertsonaien marrazkiak...

INGURUNEAREN EZAGUTZA: Familia, etxea, zooa...; animaliak: hegaztiak, ugaztunak...

NORBERAREN EZAGUTZA: Haurrak, bere itxura, gaitasun fisikoak eta INTELEKTUALAK, eta bestetik aitona: ezberdintasun morfologikoak, bizitzaren eskarmentua...